

**BASERRIETARA EGINDAKO ESKOLA
BISITAK: LEHEN HEZKUNTZARAKO
MATERIAL DIDAKTIKOEN DISEINUA,
EZARPENA ETA EBALUAZIOA
GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Arenas Cortázar, Maialen.

ZUZENDARIA: Rico Martínez, Arantza.



2015

LABURPENA:



Gradu Bukaerako Lan honetan Arabako Nekazarien Elkartearekin (UAGA) sortutako lankidetzaren ondorioz egindako proposamen didaktiko bat aurkezten da, zehatz-mehatz nekazaritza-ustiategi baten inguruan. UAGAk eskola bisitak didaktikoki mugatuak zirela sumatzeaz gain, nekazal munduaren inguruko hezkuntza eta giza baloreak transmititzeko beharra ikusi zuen eta horren ondorioz, proiektu hau sortu zen. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleekin aurrera eraman zen proposamen hau, Gasteizko Aranbizkarra ikastolako 6. mailako ikasleekin hain zuzen, Trebiñuko labore estentsiboak eta ortu ekologikoa dituen ustiategi baten inguruan. Proposamen didaktiko honek erantzun ona jaso du bai irakasle baita ikasleen partetik ere eta erabilgarria izan da nekazal inguruko zenbait kontzeptu ikasteko. Emaitzek erakusten dute, adin horretako ikasleek ez dituztela genero estereotipoak markatuta. Baserritarren eta teknologiaren erabileraren inguruko pertzepzioan ordea, hasiera eta amaierako iritzien artean ezberdintasunak izan dira. Etekin gehiago ateratzeko eta ikasleengan eragin gehiago izateko asmoz, hainbat hobekuntza proposamen egin dira ikasleen motibazioa eta irakasleen inplikazioaren inguruan.

HITZ GAKOAK: Eskola bisitak, ingurumen-hezkuntza, nekazaritza, labore estentsiboak, ortu ekologikoa, estereotipoak

RESUMEN:

En este Trabajo de Fin de Grado se presenta una propuesta didáctica centrada en una explotación agrícola, desarrollada en colaboración con la Unión Agroganadera de Álava (UAGA). Esta asociación manifestó que las visitas escolares que organizaban eran limitadas y expreso la necesidad de reforzar valores humanos y educativos del mundo de la agricultura. La propuesta se llevó a cabo con alumnos y alumnas del tercer ciclo de Educación Primaria, en concreto con estudiantes de la ikastola Aranbizkarra de sexto de primaria, centrada en una explotación agraria de labores extensivas y huerto ecológico. Esta propuesta didáctica ha recibido buena crítica por parte del alumnado y profesorado y ha sido útil para aprender algunos conceptos sobre el medio agrario. Los resultados demuestran que a esta edad no se han observado estereotipos de género en los alumnos y alumnas de esta edad. Sin embargo, la percepción que los estudiantes tenían sobre los agricultores y el uso de las nuevas tecnologías, sí que ha sufrido cambios considerables. Con el fin de sacar mayor rendimiento a la unidad didáctica, se han propuesto varias mejoras haciendo énfasis en la motivación del alumnado y la implicación del profesorado.

PALABRAS CLAVE: Visitas escolares, educación ambiental, agricultura, labores extensivas, huerta ecológica, estereotipos

ABSTRACT:

In this Graduate Dissertation a teaching plan proposal is presented, which was developed in collaboration with the Agricultural and Farming Union of Alava/Araba (UAGA). UAGA feared that sporadic visits by pupils to farms did not raise enough awareness towards agriculture and farming. Hence, this initiative was set up to design farming oriented contents and to increase such awareness. This project was aimed at 6th grade students from Aranbizkarra Primary School and was based on a visit to a farm in Trebiño, specialized on cereal crops and organic horticulture. This teaching proposal has been warmly welcomed by both teachers and students, and has proved to be of great utility to learn about some topics on agriculture. In light of the results, no gender-based stereotypes were found in kids from that age. However, changes on perceptions about farmers and their use of technology have been observed. In order to improve the performance of this teaching plan, suggestions related to students' motivation and teachers' implication are discussed throughout this work.

KEYWORDS: School visits, environmental education, agriculture, extensive work, ecological garden, stereotypes

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	6
2. HELBURUAK	10
3. METODOA	11
4. EMAITZAK	15
5. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK.....	24
6. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	26
7. BIBLIOGRAFIA	26
8. ERANSKINAK	29

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Lan honen helburua Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloari zuzendutako unitate didaktiko bat diseinatzea da, ikasleek nekazal inguruneari buruz duten pertzepzioa ezagutu eta ebaluatzeko eta Arabako baserri edo nekazal ustiategietara egindako eskola bisitak eduki didaktikoaz hornitzeko. Hortaz, Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolak eta Arabako Nekazarien Elkarteak (UAGA) duten hitzarmenaz baliatuz burutu da proposamen didaktiko hau. Esan bezala, UAGAk eskaintzen dituen bisitetan parte hartzen duten ikasleei zuzenduta dago proposamena. Hau horrela, unitate hau Trebiñuko Argote herrian dagoen nekazal ustiapenaren inguruan garatuta dago eta Gasteizko Aranbizkarra ikastolako seigarren mailan eraman da aurrera.

1.1. Eskola bisitak

Ikasleek eskolatik kanpo eta taldean egiten dituzten esperientziak dira eta errealitatearekin harremanetan jartzen laguntzen dute. Eskola bisitek hezkuntza-balore eta balore soziala duten informazioa modu aktibo, motibagarri, parte-hartzaile eta esanguratsu batean bereganatzeko helburua izan beharko lukete (Niño, 2012). Baserri edo etxaldeetara egiten diren eskola bisitak, testuinguru natural batean eta baserriko bizitzan egiten diren ekintzak ikusteko bisita gisa ulertzen dira. Helburu pedagogiko eta hezitzaile bat dute. Modu horretan, haurren garapena sustatzen dute, ingurunean bizi dituzten esperientzietatik abiatuz (Bustos, 2009). Hortaz, ikasleek kontzeptuak bereganatu, integratu eta aurretik dituztenekin erlazionatu eta barneratzeko aukera dute, testuinguru eta egoera ezberdinetan erabili ahal izateko. Baina ez da bakarrik ezagutzak bereganatu eta testuingurua analizatzea, elkarbizitzan aritzea baizik. Ikasleek kasu askotan esperientzia berriak behar izaten dituzte haien arteko enpatia, taldeko integrazioa eta elkarbizitza gaitasunak garatzeko (Velasco, 2014). Eskola bisitak eskolako ekintzak direnez, hezkuntzaren helburu pedagogikoekin erlazionatutako ekintzak izan behar dira, gelan landuak eta aprobetxatuak izateko. Bisita hauek hezkuntza formalaren barne daude, eskolak antolatzen dituen ekintzak baitira eta hezkuntza maila ezberdinetara

egokituta baitaude helburu zehatz batzuk betetzeko (Soto & Espido, 1999). Ikasleen ikaskuntza esanguratsua izan dadin, edozein jakintza arlotan irudikaturik, ikasleek ideia eta informazio ugari jaso eta gordetzeko gaitasuna izan behar dute (Tapuye, 2009). Horregatik, ekintzak planifikatu ahal izateko, garrantzitsua da alde zehatzetik helburu eta edukiak argi izatea. Irteerak aldiz, eskola ez den espazio batera egiten diren lekualdaketak dira, ekintzarik planifikatu gabe eta ondo pasatu eta disfrutatzeko helburuarekin egiten direnak (Soto & Espido, 1999). Honek ezberdintzen ditu eskola bisitak eta eskola irteerak.

Marko legalean oinarrituz, 2014-2015 ikasturteari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntza curriculumak ezartzen duen dekretuak (Dekretuak 97/2010, martxoaren 30ekoa), Lehen Hezkuntzako helburu nagusietako bat honakoa dela dio: “Natura—, gizarte— eta kultura- ingurunearen elementu nagusiak identifikatzea; ingurunearen antolaketa, ezaugarriak eta harremanak aztertzea eta ingurumenari zein bizi- kalitateari buruzko erabakiak hartu eta ulertzea, gero eta konplexuagoak diren espazio-eremuen ezagueran aurrera egiteko”. Horregatik, baserrietara egiten diren eskola bisitek, curriculumak betetzen laguntzen dute hezkuntza formalaren parte direlako.

Arabian egiten diren eskola bisitei erreparatzen badiegu, gizarte eta natur zientzien arloa jorratu eta material didaktikoak dituzten artean, hauek topa ditzakegu: Gasteizko Salburuako hezeguneen interpretazio zentroa, Gesaltza-Añana, Slow-Food Araba, Gasteizko Museoak, eta abar. Horietaz aparte, nahiz eta hain ezaguna ez izan, Arabako Nekazarien Elkarteak (UAGA, gaztelarazko akronimoan) eskola bisitak eskaintzen ditu elkarte honen parte diren ustiapenetara. Eskolek ustiapen ezberdinak aukera ditzakete, hala nola: behi edo ardi haziendak, nekazaritza estentsiboko ustiapenak eta abar.

1.2. UAGAREN HEZKUNTZA HELBURUAK

Arabako Nekazarien Elkarteak irabazi-asmorik gabeko Nekazaritza Erakunde profesionala da eta bere helburu nagusia Araba eta Trebiñuko

nekazari eta abeltzainen interesak defendatzea da. Elkartearen web orrian¹ azaltzen den bezala, 1977. urtean sortu zen, sektoreari gizartean ezagutzera emateko sortu zitzaion beharragatik. Gaur egun, 1500 nekazari ustiategi afiliatuta ditu bere baitan, gehienak familia ustiategi ertainak eta txikiak izanik. Horrez gain, EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) nekazaritza sindikatuen konfederazioan parte hartzen du, besteak beste.

Helburuei dagokienez, esanguratsuenak honakoak dira: heziketa profesionala, teknikoa, kulturala eta soziala sustatzea; politika eta gizarte mailan baserritarren ezagutza bultzatzea; landaketen eta eremu rustikoaren eta bere potentzialen eta errekurtsoen lurraldearen antolaketa integrala babestea; ingurugiroa babestu, hobetu eta mantentzea; landa eremuan gutxieneko bizi kalitatea bermatzea, osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak herrietan bermatzearen bidez; Arabako herrialde eta txoko guztietara heltzea; emakume baserritarren eskubideen eta berdintasunaren alde lan egitea eta produktuen kalitatea ezberdintzea eta komertzializazioa bultzatzea.

Aurreko helburuak kontuan hartuz eta betetzeko nahiarekin, UAGAk 6 urte (2008-2009 ikasturtetik) daramatza eskola bisitak eskaintzen, Haur Hezkuntza amaitzen ari diren ikasle edo Lehen Hezkuntzako lehenengo urteetan dauden ikasleei batez ere, salbuespenak badiren arren. Orokorrean, ikastolek bisita hauek kurtso amaiera aldera eskatzen dituzte, maiatza edo ekainean gehienetan, kurtso amaierako irteera gisa. Hasieratik honek kontraesan bat sortu zuen, UAGAk bere ustiapenak bisitatzeko aukera eskaintzen baitu, nekazal ingurua eta lanbidea ezagutarazteko asmoz eta ez irteera soil bezala. Honek suposatzen duen beharrari irtenbidea emateko, UAGAk Gasteizko Irakasleen Eskolarekiko hitzarmena sinatu zuen 2014. urtean ustiapenetara egindako bisita hauen inguruan material didaktikoak sortzeko.

1.3. Nekazal-inguruaren pertzepzioa eta estereotipoak

Ikasle askok nekazal-inguruan egiten diren lanak ez dituzte hirietan topa dezaketen edozein lanbide gisa baloratzen. Horregatik, inguru hori eta bere langileak ezagutzeak, nekazaritza eta abeltzaintza lanbide bat direla ulertu eta

¹ <http://www.uaganet.net/>

baserrietan bizi diren pertsonen lana denbora pasa dela pentsatzea baztertzeko lagunduko dute. Gainera, baserriko langileei buruz dauden estereotipoek ez dute honetan laguntzen, izan ere, adineko gizona, arropa zaharrekin jantzita, ordenagailu eta teknologia berrien ideiarik ez duena eta denbora pasa gisa lan hori betetzen duena irudikatzen dute (Holz-Clause & Jost, 1995). Emakumeak ez dituzte lanbide honen parte ikusten eta landa-eremuen mantentze, kontserbazio eta garapenean garrantzitsuak badira ere, emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta eskubideak lortzeko etengabeko erronkan daude. Adibidez, 2011an Europako kontseiluak landa-eremuetan lan egiten duten emakumeen lana ikusezina ez izateko bereizmena onartu zuen. Oraindik berdintasuna lortzeko bide luzea dagoen arren, Europan badira nekazaritzan lan egiten duten 14,6 milioi pertsona, %41a emakumeak eta horietatik %22a jabeak dira (Quintanilla, 2011).

1.4. Ingurune arloko sekuentzia didaktikoaren diseinua eta ikaskuntzan duen inpaktua

Hemen proposatzen diren material didaktikoak diseinatzeko zenbait irizpide kontuan hartu dira. Lehenik eta behin, unitate didaktikoa diseinatzen hasteko, helburu orokorrak zehaztu behar dira. Hauek gutxi eta oinarrizkoak izan beharko liriateke eta unitatearen iraupenarekin lotura izan beharko lukete. Ondoren, jardueretan beteko diren helburuak adosten diren heinean, unitateko helburu zehatzak eta kontzeptuzko, jarrerazko eta prozedurazko edukiak definitzen joango dira (Sanmartí, 2000). Proposatuko den sekuentzia edo material didaktikoa konstruktibismoan oinarritzen da, hau da, ikasleek ezagutza berriak esperientzien bitartez eraikiko dituzte, beti haien aurre-ideietatik abiatuta. Errealitatea ulertzeko ikasleak era aktibo batean murgiltzen direnean, ikaskuntza esanguratsuagoa dute (Dewey, 1964). Jardueren diseinuarekin jarraituz, hasieran egiten direnak ikasleen aurre-ideietan oinarritzen dira. Ikasleei esperimendatuko dutena interpretatzen, ikasitakoarekin erlazionatzen eta zein aspektutan zentratu behar diren jakiten laguntzen diete. Garrantzitsua da ohartzea proposatutako materiala bisita baten inguruan diseinatzen dela, beraz, ikasleak gehiago kontzentratuko dira eta adi egongo dira bisita aurretik

edukiak landu izan badituzte. Gainera, ikaskuntza esanguratsuagoa lortzen dute landutakoa eta bisitan ikusitakoa erlazionatzen badute (Moreira, 1997).

Edonola ere, baserri edo etxalde batera egiten diren bisitek ikasleen ikaskuntzan duten eragina aztertzen duten ikerketa gutxi daude, eskolan lantzeko material didaktiko ugari eskaintzen diren arren. Gure inguruan, esaterako, badaude horrelako baliabideak, Natur Eskola Biziak² eta Eusko Jaurlaritzako Hazi agentziak³ eskaintzen dituztenak, esaterako. Dena den, 2013-2014 ikasturtean Gradu Amaierako Lan baten bitartez (Velasco, 2014), Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloari zuzendutako unitate didaktikoa diseinatu eta aurrera eraman zen behi-ustiategi baten inguruan. Material honek harrera ona izan zuen UAGA eta zenbait eskolen partetik. Gasteizko Irakasleen Unibertsitate eskolako ikasleek egiten dituzten Gradu Amaierako Lanekin, eskaintza aproposa sortzen ari da, bisita eta material didaktikoen inpaktua ikasleen ikaskuntzan neurtzeko (Rico, komunikazio pertsonala).

Elkartearen eskaintza aberasteko, UAGAk eskaintzen dituen eskola bisitekin erlazionatutako material didaktiko berria azalduko da. Kasu honetan hirugarren ziklora bideratutako sekuentzia proposatzen da, parte hartu duten eragileekin adostutako helburuak bete, eskola bisitak curriculumeko planean egokitu eta ikasleen hasierako eta amaierako ebaluazioan laguntzeko.

2. HELBURUAK

- Hirugarren zikloari zuzendutako unitate didaktikoa diseinatzea, baserrira egindako bisitak eskola-bisita eta ez irteera gisa landu daitezzen.
- Diseinatutako unitate didaktikoa aurrera eramatea hirugarren zikloko gela batean.
- Unitate didaktikoa ezarri eta ikasleen ikaskuntza ebaluatzea.
- Nekazaritzari eta nekazariei buruzko ikasleen pertzepzioak ezagutzea eta unitate eta bisitak ikasleengan izan duen inpaktua neurtzea.

² <http://www.natureskolabiziaz.com/es/>

³ <http://www.hazi.es/es/proyectoshazi/253-in-agro-salute.html>

3. METODOA

3.1. Parte hartzaileak

Proiektu honetan parte hartu dutenak hauek izan dira: Aranbizkarra ikastolako seigarren mailako bi tutoreak, hirugarren zikloko koordinatzailea, Aranbizkarra ikastolako seigarren mailako ikasleak (16 neska eta 18 mutil), UAGako komunikazio arduraduna eta Trebiñu baserriko jabeak.

3.2. Sekuentzia didaktikoaren diseinua

3.2.1. Prestaketa fasea

Unitate didaktikoaren diseinuari hasiera emateko, 2015eko urtarrilean, Argotera bisita egin zen. Bertan, etxaldeko jabeak, Yolandak, ikasleek egiten dituzten bisitetan zer egiten duten azaldu, etxaldea erakutsi eta bere nahiak edo helburuak zeintzuk diren azaldu zuen. Hilabete bat beranduago, Aranbizkarra ikastolako irakasleak kolaboratzeko prest zeudela komunikatu eta haiekin harremanetan jarri ginen lehenengo bilera bat egiteko. Biler horretan, aurrera eramango zen sekuentziaren nondik norakoak azaldu genizkien eta irakasleek haien interesetatik abiatuz, sekuentzia diseinatzerako orduan lagungarriak izan ziren ideiak bota zituzten. Hori guztia kontuan hartuta, sekuentzia didaktikoa behin diseinatuta, beste bilera bat antolatu zen sekuentzia aztertu eta ezarketa planifikatu ahal izateko.

3.2.2. Sekuentzia didaktikoaren egitura

Jarraian agertzen den material didaktikoa (1.eranskina), eskoletan aurrera eramateko proposatzen da. Aproposena unitate didaktiko hau Arabako eskoletan aurrera eramatea litzateke, ingurunearen ezaguera ikasgai hain zuzen. Gainera, irakasleentzako gida bat ere aurkezten da (2.eranskina).

Lan hau UAGari zuzenduta dago, bisitak eskaintzeaz gain, material didaktiko hau eskain dezakeelako. Bisitak egiten dituzten ikasleen tutoreek ere

material hau haien irakaskuntza plangintzan sar dezaketen. Horrez gain, ikasleek baserriari buruzko ezagutzak bereganatzea, bertako lana ezagutzea, egunerokotasuneko produktuen jatorria ezagutzea eta ingurugiroa ezagutu eta errespetatzea du helburu.

3.2.3. Gaia: Baserria hurbiletik ezagutzen

3.2.4. Maila: Lehen Hezkuntzako 6.maila

3.2.5. Saioak eta jarduerak: 6 saio eta 10 jarduera

- 1. saioa: Unitate didaktikoari hasiera emateko eta ikasleen aurre-ideiak ezagutzeko, 1., 2. eta 3. jarduerak (*Ea zenbat dakizun*) egin.
- 2. saioa: Aurreko saioa komentatu ikasleen aurre-ideiak guztion artean konpartitzeko, 3. jarduerako (*Baserria ezagutzen*) bideoa ikusi eta 4. eta 5. jarduerak (*Hiztegia ikasten eta hizki sopa*) egin hiztegi espezifikoaren ezagutzeko.
- 3. saioa: 6. jarduera (*Informazioa bilatu*) egin zerealen inguruko informazioa bilatu eta garia, oloa eta garagarra ezberdintzen ikasteko.
- 4. saioa: 7. jardueran (*Bidaia prestatzen*) matematikako lau buruketa egin.
- 5. saioa: 8. eta 9. jardueretan (*Bisita eta gero*) hiria eta baserriaren alde onak eta txarrak tauletan idatzi eta taldeka baserriko eta ikastolako baratzak aztertu.
- 6. saioa: 10. jardueretan (*Ea zenbat ikasi duzun eta inkesta*) bideoa ikusi baino lehen eta bisita egin baino lehen egindako galdera berdinak erantzun eta asebetetze inkesta bete.

3.2.6. Oinarrizko gaitasunak:

- Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.
- Matematikarako gaitasuna.
- Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna.

- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- Giza eta arte kulturarako gaitasuna.
- Ikasten ikasteko gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

3.2.6. Helburu didaktikoak:

- Lehenengo sektorea eta baserrian egiten diren lanak ezagutzea.
- Emakumea sektoreko langile giza ikustea.
- Egunerokotasuneko produktuen jatorria ezagutzea.
- Ingurune naturalarekiko sentsibilitatea sorraraztea, ikaslearen interesa eta ardura sortuz.
- Ingurune naturalean esperientzia berriak sortzea, ezagutu eta baloratzea.
- Ingurunearekiko eta animaliekiko errespetua erakusten duten jarrerak sorraraztea.

3.2.7. Edukiak:

- Landareetatik jasotzen diren produktuak.
- Eguneroko matematikako problemak.
- Zerealen produkzioa eta ekoizpena.
- Nekazal ingurune eta hiri ingurunearen ekarpenak gizartean.
- Nekazal inguruneke langileak.
- Eguneroko produktuen jatorriak.
- Inguru naturalarekiko errespetuzko jarrera.
- Zereginetan parte hartze aktiboa eta interesa izan.
- Jarduerak autonomiaz eta txukuntasunez bete.
- Taldean lan egiteko aldeko jarrera izan eta kideak baita haien iritziak errespetatu.

3.2.8. Ebaluazio irizpideak:

- Bisita baino lehen eta ondoren, nekazal ingurune eta hiri ingurunearen ekarpen pertzepzioa garatu/aldatu du.
- Bisita eta gero, emakumea nekazal inguruneko langile gisa identifikatzen du eta bertako bizimodua ezagutzen du.
- Landaretatik jasotzen diren produktuak ezagutu eta identifikatzen ditu.
- Baserriaren inguruko lexiko espezifikoa ikasi du.
- Zerealen inguruko informazioa bilatu eta galderak erantzuteko gai da.
- Parte hartze aktiboa eta interesa erakusten du.
- Zereginak autonomiaz eta txukuntasunez betetzen ditu.
- Talde lanean aritzen da eta kideen iritziak entzun eta errespetatzen ditu.

3.3. Sekuentzia didaktikoaren ezarpena eta bisitaren antolakuntza

Lehenik eta behin, sekuentzia didaktikoa egin eta Gradu Amaierako Lan honen tutoreak bere oniritzia eman eta gero, Aranbizkarra ikastolako 6. mailako tutoreei eta 3. zikloko koordinatzaileari bidali zitzairen. Handik egun batzuetara, ikastolan bildu ginen irakasleen iritziak entzuteko eta handik aurrera egingo zena adosteko. Bertan, jardueren nondik norakoak eta sekuentziaren helburuak azaldu zitzaizkien. Jada, baserriko jabearekin harremanetan jarriak ginen eta bisita ekainaren 10ean egingo zela bagenekienez, bi tutoreen artean sekuentzia nola antolatuko zuten adostu zuten. Ni, bisita baino lehen egingo zuten saio batera, Argotera bisita haiekin egitera eta bisita eta gero unitateen bila joango nintzela adostu genuen. Hori horrela, maiatzaren 26an Aranbizkarra ikastolara joan eta 6.B-koekin diseinatutako sekuentzia didaktikoaren 1. saioa (1., 2. eta 3. jarduerak) eta 6.A-koekin 2. saioa (4. 5. eta 6. jarduerak) nola burutu zituzten ikusi nuen, betiere nire rola behatzailearena izanik.

Ekainaren 10ean, eskolan bildu ginen bisita egiteko, autobusa hartu eta Argotera joan ginen. Bertan baserriko jabeetako bat, Yolanda, gure zain zegoen

eta berehala autobusetik jaitsi eta bisitarekin hasi ginen. Lehenengo azalpenak nekazaritzako makineria gordetzen zuten pabiloian eman zituen eta ondoren, negutegira joan ginen. Bertan azalpenak eman eta ikasleak lau taldetan banatu zituzten egiten ziren lanetan laguntzeko baina euria ari zuenez, bisita apur bat moldatu behar izan zuen eta lan guztiak negutegi barruan egin behar izan zituzten. Bisitari amaiera emateko, Yolanda, baserriko produktuekin berak egindako marmelada ogi apur batekin eta limoi-zukua eman zigun dastatzeko. Nire rolari dagokionez, behatzailearena bazen ere, ikasleak taldeetan banatu zituztenean, irakasleei taldeak koordinatzen lagundu nien.

Ekainaren 23an, 6. mailako tutoreekin eta koordinatzailearekin eskolan bildu ginen haien iritziak entzuteko, hobetu beharrekoen inguruan hitz egiteko eta ikasleen txostenak jasotzeko. Hurrengo egunetan bisitaren inguruko asebetetze-inkesta bete eta gurekin kontaktuan jarriko zirela adostu eta horrela, unitate didaktikoari amaiera eman genion.

4. EMAITZAK

4.1. Ikasleek egindako bisitaren deskribapena eta ebaluazioa

Aurretik azaldu bezala, baserrira heldu bezain pronto, Yolanda bertan itxaroten zegoen eta makineria gordetzen duten pabiloira eraman zituen ikasleak. Bertan ongietorria eman eta azalpenekin hasi zen (1. irudia). Laburbilduz, lehenengo baserria nola antolatuta zegoen azaldu zien, esaterako, makineria gordetzen duten pabiloia, soro handiak, oilategia, negutegia eta etxeak dituztela azaldu zien. Ondoren, ikasleek nagusitan zer izan nahi zuten galdetu eta nekazaritza ere lanbide bat dela azaldu eta zien. Horrekin batera, kooperatiba baten parte direla eta nekazaritza eta ekonomiaren lotura era sinple batean azaldu zien ikasleek uler zezaten. Bisitatzera joan ziren baserrian zentratuz, labore estentsiboetan, baratza eta arrautza ekologikoetan eta nekazal turismoan aritzen zirela esan zien.



1. irudia: Makineriaren pabiloia

Hasierako azalpen horrekin bukatzeko eta une batez euria egiteari utzi zionez, zereal soro batera hurbildu eta zerealen ereite eta jasotzeari buruzko azalpena eman, istorio txiki bat kontatu eta zein zereal zen galdetu zien Yolandak. Ikasle batzuk aurretik klasean informazioa bilatu eta jarduerak egin zituztenez, ezaguna egin zitzairen eta berehala erantzun zuten. Dena den, garagarra eta gariaren arteko ezberdintasunak azaldu zituen: gariak buru konposatuak eta pisu bakoitzean lau ale dituela, garagarra ordea, aleak binaka antolatuta eta bizarrak luzeagoak dituela.

Berriro ere eguraldia zela eta, negutegira sartu behar izan ziren eta bertan ere, Yolandak azalpen txiki bat eman zuen: negutegi horretan baratza ekologikoa zutela eta produktuak kontsumo talde batean eta azokan saltzen zituztela esan zien. Ikasleen parte hartzea sustatzeko, galderen bitartez (“Zer esan nahi du ekologiko hitzak?, Zer da hemen daukagun barazkia?, Eta hor dagoena?”) negutegiko produktuak identifikatu behar zituzten. Jarraian, ikasleak lau txoko ezberdinetan banatu zituzten baserriko lanetan laguntzeko (2. irudia). Eguraldiak mugatuta, hiru txoko negutegi barruan egin behar izan ziren: lehenengo txokoan babak ateratzen, bigarrenetan tomateak landatzen eta hirugarrenean asteburu horretan jabeek zuten azokarako kutxa-apaingarriak lixatzen eta belar txarrak kentzen aritu ziren. Laugarren txokoan, oilategiko arrautzak batzen egon ziren (3. irudia). Kanpoan egiten diren lanak ikusi eta

horietan laguntzea ezinezkoa izateaz gain, negutegian espazioa mugatua zenez, taldeak koordinatzea zailagoa izan zen.



2. irudia: Txokoetan lan egiten



3. irudia: Oilategian lanean

Hori kontuan hartuta, egindako bisitak alde indartsu eta ahulak dituela esan genezake. Alde ahulei dagokienez, ikasle batzuen jarrera ez zen egokiena izan. Esaterako, batzuk azalpenak ematen ziren bitartean hitz egiten eta haien artean jotzen aritu ziren eta laboreak egiterako orduan, interes eta gogo gutxirekin egiten zituzten. Horren aurrean, irakasleek jarrera pasiboa erakutsi zuten eta horrek Yolandaren lana oztopatu zuen. Alde indartsuei dagokienez, garrantzitsua da aipatzea eguraldia oztopo bat izan bazen ere, jabeak bisita oso ondo moldatu zuela eta ikasle batzuen jarrera desegokiaren aurrean ondo jokatu zuela. Bukatzeko, ikasleek egindako lanaren sari gisa eta baserriak eskaintzen dituen onurak erakusteko, Yolanda baserriko produktuekin egindako marmelada eta limoi-zukua probatzeko aukera eman zien ikasleei. Hauek oso gustura dastatu eta Yolanda zoriondu zuten.

4.2. Sekuentzia didaktikoaren ezarketa eta ebaluazioa

Gradu Amaierako Lan honetan proposatzen den unitate didaktikoa gelako tutoreek aurrera eramatea eta egileak berak behatzailearen eta datu jasotzailearen rola hartzea egokiago ikusi zen. Horrela, Aranbizkarra ikastolaren kolaborazioa eskatu zen eta bertako 6. mailako tutoreek proposamena aurrera eramateko laguntza eskaini zuten. Unitate didaktikoa ia % 100ean bete ahal izan zuten. Hala ere, jarduera batzuk ez ziren bete, hala nola, 6. jarduera (*Informazioa bilatu*) ia ikasle gehienek egin gabe utzi zuten eta 7. jarduera (*Bidaia prestatzen*) 6.A-ko ikasleek ez zuten bete (1. eranskina).

– 1. saioa: Ea zer dakizun

Garrantzitsua da aipatzea, unitateari hasiera emateko, ikasleek baserriaren eta nekazarien inguruko aurre-ideiak jasotzeko saio bat prestatu zela. Baina irakasleek unitatea nola antolatuko zuten erabaki eta gero, ez zen aurreikusita zegoen bezala egin. Izan ere, 3. jarduerako bideoa lehenengo saioan ikusi zuten, ikasle askok, bideoa ikusten zuten bitartean, galderak (1. koadroa) erantzuten zituzten. Beraz, jaso beharreko aurre-ideia batzuk ez ziren guztiz errealak izan eta unitatearen amaieran errepikatu beharreko galderen erantzun gehienak antzekoak izan ziren. Hortaz, bisita egin baino lehen eta

ondoren baserriari eta baserritarrei buruz zuten pertzepzioa ikustea zaila izan da.

Bisita baino lehen

3) Baserria ezagutzen. Ea zenbat dakizun!

1. Emakumea baserritarra izan daiteke? Edo bakarrik gizona? Zergatik?


2. Baserritarrek aberatsak edo pobreak direla uste duzu? Zergatik?

3. Baserritarrek ordenagailuak erabiltzen dituztela uste duzu?

4. Zertan uste duzu egiten dutela lan baserritarrek?

1. koadroa: Aurre-ideiak detektatzeko 1. ariketa

Dena den, aurre-ideiak detektatzeko jardueren erantzunak aztertu ondoren, ikasleek orokorrean honela imajinatzen dute baserri ingurunea: animalia askorekin, baratza handi batekin, inguru zabal, polit eta lasai batekin, kutsadurarik gabeko ingurua baina usain txarrarekin, etxe handi batekin... Baserritarrei buruz duten pertzepzioa zein den jakiteko, emakumeak ere baserritarrek izan daitezkeen, baserritarrek aberatsak edo pobreak diren eta teknologia berriak erabiltzen dituzten galdetu zaie (1. koadroa). Erantzunei erreparatuz, % 95ak uste du emakumeak baserritarrek izan daitezkeela (4-A irudia). Ehuneko 58ak uste du baserritarrek ez direla pobreak ezta aberatsak ere, % 32ak uste du aberatsak direla eta % 10ak pobreak direla (4-B irudia). Azkenik, % 55ak uste du baserritarrek teknologia berriak erabiltzen dituztela (4-D irudia). Guztiek uste dute baserritarren lana animaliak eta baserria zaindu, garbitu eta landareak landatzean datzala.



4. irudia: Aurre-ideiak jasotzen dituzten grafikoak

– 2. saioa: *Baserría ezagutzen eta hiztegia ikasten*

Saio honetan ikusi beharreko bideoa lehenengo saioan ikusi zuten. Hiztegia ikasteko guztiok elkarrekin jarduerak arbela digitalean egin zituzten, horregatik, ariketa hau ez zen aztertu.

– 3. saioa: *Informazioa bilatu*

Jarduera honen erantzunak ez dira aztertu ikasleen egin beharrekoa beste informazio-iturrietan dagoen informazioa jasotzea zelako. Baina bisitan, zerealen soroa ikusi eta Yolanda gari-buru bat hartu eta ea zer zereal mota zer galdetu zuenean, jarduera burutu zuten ikasleek garia identifikatu eta zertarako balio zuen esan zuten. Beraz, jarduera baliagarria izan zitzaiela esan daiteke.

– 4. saioa: *Bidaia prestatzen*

Lehen esan bezala, 6.A-ko ikasleen ez zituzten matematikako buruketak egin eta 6.B-ko ikasleek arbela digitalean guztion artean egin zuten. Beraz, jarduera hau ez da aztertu.


– 5. saioa: Bisita eta gero

Bisita ondoren, hasieran egin zuten bezala, baserria eta hiriaren ideia nagusiak idatzi behar zituzten. Baina ariketa arbela digitalean egin zutenez, ikasle guztiek erantzun berdinak jarri zituzten. Horregatik, ez dira datuak banatuta adierazten. Taldeetan bildu eta baserri zein eskolako baratzak aztertu eta hobekuntza proposamen bat egin beharreko jarduerako datuak 1. taulan jaso dira.


1. Taula. Eskolako eta baserriko baratzetarako buruzko erantzunak	
ESKOLAKO BARATZA	BASERRIKO BARATZA
<ul style="list-style-type: none"> - Landatutakoa ez da hazten - Txikiagoa da - Ez dago zainduta - Produktu gutxi daude - Ume txikiek zapaltzen dute 	<ul style="list-style-type: none"> - Landatutakoa gehiago hazten da - Handiagoa da - Oso ondo zainduta dago - Produktu asko daude - Baserritarrek asko dakite
<p>HOBEKUNTZA PROPOSAMENA:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hobeto zaintzea - Negutegi bat jartzea 	

– 6. saioa: Ea zenbat ikasi duzun eta inkesta

Sekuentzia didaktikoari amaiera emateko eta ikasleen pertzepzioa aldatu den edo ez jakiteko, galdera berdinak egin ziren eta honako erantzunak jaso dira: % 100ak uste du emakumeak baserritarrek izan daitezkeela. Ehuneko 72ak uste du baserritarrek ez direla pobreak ezta aberatsak ere, % 18ak uste du aberatsak direla eta % 10ak pobreak direla (5. irudia). Guztiek uste dute baserritarrek teknologia berriak erabiltzen dituztela. Ezberdintasun handirik ageri ez den arren, baserritarrek teknologiaren erabilerari buruz eta aberastasunari buruz duten pertzepzioaren inguruan aldea ikusi da (6. irudia).



5. irudia: Bisita ondoren jasotako erantzunak



6. irudia: Ikasleen pertzepzioan eman diren aldaketak

Sekuentziaren amaieran, bisita eta unitate didaktikoari buruzko asebetetze inkesta 34 ikaslek bete zuten. Erantzunak lau kategoriatan banatu ziren (bat ere ez, gutxi, nahiko eta asko) eta horien portzentajeak 2. taulan erakusten dira. Gelan egindako jardueretikiko interesa adierazterakoan, erantzun gehienak (% 76a) nahiko edo asko kategorietan jaso ziren. Gainera, bisitan jorratutakoa ulertzeko kasu gehienetan lagungarriak izan direla esan daiteke. Interesgarria da aipatzea, bisita eta baserri-ingurua gustatu zaien arren, ez luketela baserrian lan egingo.

2. Taula. Bisita eta unitate didaktikoari buruzko asebetetze inkesta				
Galderak	Kategoriak (%) *			
	Bat ere ez	Gutxi	Nahiko	Asko
Klasean egindako ariketak interesgarriak iruditu zaizkizu?	3	21	43	33
Bisita egunean, azalpenak ulertu zenituen?	3	11	33	53
Klasean egindako ariketak azalpenak ulertzen lagundu dute?	7	11	17	65
Interesgarriak ziren bisitan eman zituzten azalpenak?	11	7	43	39
Baserri ingurua gustatu zaizu?	3	3	43	51
Gustatu zaizkizu baserrian egiten diren lanak?	3	22	39	36
Gustatuko litzaizuke baserri batean lan egitea nagusia zarenean?	25	28	22	25
Orokorrean, gustatu zaizu egindako guztia?	3	3	43	51

*Letra lodiz markatuta daudenak nagusitzen diren kategoriak dira.

Ea sekuentzia didaktikoa gustatu zaien eta ezer berririk ikasi zuten galdetu zitzaienean, erantzun asko errepikatu baziren ere, 3. taulan esanguratsuenak jaso dira.

3. Taula. Galdera irekiaren adibideak
<i>“Animaliak egotea gustatu zait. Ikasi dut baserritarrek lan asko egiten dutela”</i>
<i>“Oiloei jaten ematea gustatu zait gehien. Bai, gauza asko ikasi ditut, adibidez: landareak noiz landatzen eta jasotzen diren, zein makinaria erabiltzen duten eta orokorrean baserritarrak nola bizi diren”</i>

4.3. Irakasleek sekuentzia didaktikoari eta bisitari buruz emandako iritzia

Gelan egindako jardueren ondoren, Aranbizkarra ikastolako 6. mailako bi tutoreak gustura aritu zirela eta materiala egokia zela esan zuten (3. eranskina). Gelan ikusitako bideoa oso interesgarri eta entretenigarria izan zela eta ikasleak oso adi egon zirela azpimarratu zuten. Are gehiago, ekintza egonkortu nahi zutela plazaratu zuten. Hala ere, ikasleek sekuentzia didaktikoa “lan” gisa ulertu zutela zioten, hau da, fitxak bete eta idazteak ikasleengan motibazio falta zekarrela. Horregatik, teknologia berriak erabiltzea ideia ona litzatekeela proposatu zuten. Horrez gain, unitatea eta bisita egiteko, ekaina ez zela izan hilabeterik egokiena aitortu zuten, lanez gainezka egoteaz gain, beste hainbat bisita ere izan baitzituzten.

Bisitari erreparatuz, eguraldia oztopo bat izan bazen ere, gustatu zitzaizela eta Yolandaren lana oso ona izan zela azpimarratu zuten. Argotera joan baino lehen, bisitaren inguruko informazio zehatzagoa jasotzea faltan izan zutela aipatu zuten.

5. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Ez dago inongo dudarik hezkuntza gizarteko alor garrantzitsuenetarikoa dela eta ingurumenarekiko errespetuzko jarrera lortzeko ardura handia duela. Horregatik, UAGAk egiten duen lana aitortu eta ematen duen aukera paregabea eskertzen da. Gradu Amaierako lan hau pertzepzioak neurtzeko nolabaiteko froga bat izan bada ere, etorkizunean lagungarria izatea eta eskola gehiagotara zabaltzea espero da. Horrez gain, baserriei buruzko lan didaktiko gehiago (beste zikloetan eta ustiapen ezberdinetan) burutzea interesgarria litzateke. Modu honetan, eskola gehiagoren parte hartzea sustatu eta ingurumenarekiko ardura ikasle gehiagok hartuko lukete.

Parte hartzaileen iritzia jaso eta hausnartu eta gero, eskola bisitaren inguruan egindako unitatea tresna baliagarria dela eta kontzeptu berriak ikasi dituztela esan daiteke. Bisita bera ere baliagarria izan da baserriko jabearen azalpenak ikasleen ikaskuntzan lagungarriak izan baitira. Esaterako,

emaitzetan nabaria izan da teknologia berrien erabilerari buruzko pertzepzioan ikasleek izan duten aldaketa, Yolanda bere azalpenetan ordenagailua salmentak egiteko erabiltzen dutela esan baitzuen. Ordea, irabazien inguruan ez zuen azalpen handirik eman eta ondorioz, baserritarrak pobreak edo aberatsak diren galdetu zaienean, askok (% 72ak) ez dute erantzuten jakin.

Esan beharra dago proposatutako unitatearen egilearen eta irakasleen arteko komunikazioa ezinbestekoa dela helburuak bete ahal izateko. Esaterako, garrantzitsua da, ikasleen aurre-iritziak jasotzerako orduan batez ere, ez irakasleek ezta hurrengo saioko jarduerak ere ikasleak baldintzatzea. Horrela, unitate didaktikoak ikasleen ikaskuntza prozesuan duen eraginkortasuna era egokian ebaluatuko litzateke. Gainera, eskola bisita bat planifikatzea eta eduki didaktikoez gelan jorratzea ezinbestekoa da etekin sendoa ateratzeko. Hortaz, oso garrantzitsua da irakasleek egiten duten lana, hau da, haien inplikazioa ezinbestekoa izateaz gain, ikasleak motibatzeke gai izan behar dira. Horretarako, tresna lagungarri izan daitezke teknologia berriak, izan ere, edukiak hobeto asimilatzen, jarduerak entretenigarriago egiten, ikasleak motibatuta egoten eta parte hartzea bultzatzen laguntzen baitute (Salinas, 2004).

Proposatutako sekuentzia didaktikoa abian jarri eta emaitzak aztertu ondoren, adin honetako ikasleek jorratutako arloan generoari buruzko estereotipoak finkatuta ez dituztela ikusi da. Baieztapen hori bat dator beste ikerketa baten emaitzekin (Farming and Countryside Education, 2011). Aldiz, ikasle askorentzako ezezaguna den lanbidea denez, baserria eta baserritarrei dagokienez, topiko nahiko finkatuak dituztela adierazi dute emaitzek. Hala nola, ogibide honetan gaur egun ematen den teknologia berrien erabileraren berririk ez dute ikasleek.

Amaitzeko, argi dago kurtso bukaera ez dela garairik egokiena izan sekuentzia didaktikoa praktikan jartzeko. Izan ere, ikasleak azterketa garaian egoteaz gain, irakasleak ere lanez gainezka ibili dira eta haien inplikazio apalak jarduera batzuk ez burutzea ekarri du. Jarrera hori unitatea ebaluatzeke oztupoa izateaz gain, ikasleen motibazioan ere eragina izan du nire aburuz. Horrez gain, ikasleek unitatea "lan" gisa ulertu zutela helarazi ziguten tutoreek, nire ustetan, bai irakasleek baita ikasleek ere, eskola bisita hau irteera gisa ulertu zutelako.

6. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

- Teknologia berriak erabiltzea gelako jarduerak egiteko.
- Formatuari dagokionez, jarduerak errepikatu beharrean beste jarduera mota batzuk planteatzea, betiere edukia mantenduz.
- Unitate didaktikoaren egilearen parte hartzea aktiboagoa izatea.
- Unitate didaktikoa ezarri eta bisita egiterako orduan irakasleak gehiago inplikatzeko eta ikasleak motibatzea.
- Ikasleak motibatuta egotea.
- Bisita egiteko ikasle kopurua 20-25 ingurukoa izatea.

7. BIBLIOGRAFIA

- Bustos, E. (2009). Los animales de la granja. *Revista Digital de Innovación y Experiencias Educativas*, 18, 1-10.
- Bustos Jiménez, A. (2009). La escuela rural ante un contexto en transformación. *Revista de Educación*, 350, 449-461.
- De Pro Bueno, A. (1999). *Planificación de unidades didácticas por los profesores: análisis de tipos de actividades de enseñanza*. Murtziako Unibertsitatea.
- Dewey, J. (1964). *John Dewey*. 2015-06-12 (ean) berreskuratua <http://www.monografias.com/trabajos81/john-dewey/john-dewey2.shtml#aportesmea-tik>.
- Farming and Countryside Education (2011). *Agricultural and Horticultural Development Board. Research in Schools: Benchmarking the views of children aged 7-11, on food, farming and countryside issues, Quantitative report*. 2015-07-08 (ean) berreskuratua <http://www.face->

online.org.uk/research/benchmarking-the-views-of-children-on-food-farming-and-countryside-issues-june-2011-tik.

- Gómez, G., Alma, A., Sanmartí, N. & Pujol, R.S. (2007). *Fundamentación teórica y diseño de una unidad didáctica para la enseñanza del modelo de ser vivo en la escuela primaria*. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2010). 97/2010 Dekretua, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzekoa.
- M Holz-Clause & Jost, M. (1995) Using focus groups to check youth perceptions of agriculture. J. Ext. 33, 3FEA3.
- Moreira, M. (1997). Aprendizaje significativo: un concepto subyacente. 91501-970 Porto Alegre, RS, Brasil.
- Morentín, M. & Ajuria, I. (2013). *La visita ideal a un museo de ciencias, según los equipos educativos*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Niño, M. C. (2012). *Las salidas escolares en la Educación Primaria*. Gradu Amaierako Lana. Valladolideko Unibertsitatea. 2015-04-30 (ean) berreskuratua
<https://uvadoc.uva.es/bitstream/10324/1845/1/TFGL%2056.pdf>-tik.
- Prieto, M. (2008). *Ikasleen interesak curriculum-garapenaren euskarri lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailatan: Ikasleen Pentsamenduen Koadernoak, ikasleen bizitzan oinarritutako curriculum-garapenerako tresna bat*. Doktorego-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

- Quintanilla, M. C. (2011). Las mujeres en el medio rural en Europa. Comisión de Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres, Madrid.
- Salinas, J. (2004). *Cambios metodológicos con las TIC. Estrategias didácticas y entornos virtuales de enseñanza-aprendizaje*. Revista de pedagogía 56(3-4), 469-481.
- Sanmartí, N. (2000). *El diseño de unidades didácticas*. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.
- Soto, J. R. & Espido, E. (1999). La educación formal, no formal e informal y la función docente. *Revista Digital de Innovación y Experiencias Educativas*, 9, 311-323.
- Tayupe, A. R. (2009). *Teoría del aprendizaje significativo de David Paul Ausubel*. 2015-04-13 (ean) berreskuratua <http://www.monografias.com/trabajos75/teoria-aprendizaje-significativo-david-ausubel/teoria-aprendizaje-significativo-david-ausubel.shtml-tik>.
- Velasco, E. (2014). *Diseño, implementación y evaluación de material didáctico para Educación Primaria en relación a una visita a una explotación agropecuaria*. Gradu Amaierako Lana. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Wilson, A. (1996). Methods used in researching children's perceptions of farmers & farming. *Raising Achievement in Geography Occasional Paper*, 1, 90-92.

8. ERANSKINAK

1. eranskina

BASERRIA

HURBILETIK

EZAGUTZEN

IZENA ETA ABIZENA:.....

MAILA:.....

EGUNA:.....




creativecommons.org

Obra hau Creative Commons (CC) – Aitorpen – Ez Komertziala – Partekatu Berdin (by-nc-sa) babestuta publikatzen da. Lizentzia honek obra originalaren testuak irakurri, deskargatu, kopiatu, banatu, inprimatu, bilatu edo estekatzea aitortzen du, baita beste edozein helburu legitimorekin erabiltzea ere, inolako oztopo ekonomiko, legal edo teknikorik gabe, betiere autorearen izendatuz. Jatorrizko obra erabiliz sortutako beste obra batzuk ezin dira merkataritza helburuekin erabili; sortutako obraren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berarekin egin behar da.

EGILEA: Maialen Arenas Cortazar

2015

- 1) **Baserri batera bisita egingo duzula jakin eta gero, nolakoa imajinatzen duzu? Zer nolako gauzak ikusiko dituzula uste duzu? Deskribatu.**



2) Ondorengo tauletan, jar itzazu baserria eta hiriaren alde onak eta alde txarrak.

BASERRIA	
ALDE ONAK	ALDE TXARRAK

HIRIA	
ALDE ONAK	ALDE TXARRAK

3) Baserria ezagutzen. Ea zenbat dakizun!

1. Emakumea baserritarra izan daiteke? Edo bakarrik gizona? Zergatik?

2. Baserritarrek aberatsak edo pobreak direla uste duzu? Zergatik?

3. Baserritarrek ordenagailuak erabiltzen dituztela uste duzu?

4. Zertan uste duzu egiten dutela lan baserritarrek?

5. Ba al dakizu ze produktu behar diren patata tortilla bat egiteko? Nondik datoz produktu horiek?

Nondik datoz supermerkatuetan aurkitzen dituzun produktuak?

Ikus ezazu hurrengo bideoa eta hausnartu: <https://vimeo.com/58894409>

4) Hiztegia ikasten. Lotu baliokideak diren hitzak eta dagokion argazkiaren azpian kokatu.

EUSKARAZ	GAZTELANIAZ
1. Garia	a. Habas
2. Oloa	b. Huevos
3. Garagarra	c. Trigo
4. Ilarrak	d. Cebada
5. Babak	e. Avena
6. Andere-mahatsak	f. Guisantes
7. Arrautzak	g. Grosellas
8. Oiloak	h. Gallinas
9. Lekak	i. Alcachofas
10. Belar aromatikoak	j. Espárragos
11. Zainzuriak	k. Hierbas aromáticas
12. Orburuak	l. Vainas













5) Bila itzazu hizki sopa honetan aurreko ariketako hitzak euskaraz.

B	E	L	A	R	A	R	O	M	A	T	I	K	O	A	K
A	D	I	B	K	H	O	I	K	A	K	E	L	G	L	I
Z	M	E	R	O	F	P	A	X	K	C	R	P	O	B	S
X	C	H	K	R	I	Z	J	D	A	H	U	T	H	J	F
A	F	X	D	B	T	Z	A	I	N	Z	U	R	I	A	K
R	H	K	T	U	V	I	S	R	F	O	V	P	I	J	U
R	F	R	A	R	S	B	H	D	I	H	K	A	I	G	S
A	I	R	Z	U	U	T	J	O	B	G	H	O	P	I	U
G	R	E	R	A	R	S	I	L	A	R	R	A	K	L	B
A	K	B	O	K	K	C	B	N	B	H	O	D	K	K	O
R	L	I	P	G	V	M	I	O	A	I	I	X	T	G	P
A	I	X	F	S	A	O	J	G	K	O	K	A	T	L	G
G	U	O	Z	P	T	R	P	A	Z	H	Z	N	H	U	A
M	P	A	L	S	O	I	L	O	A	K	L	D	D	I	R
I	N	O	S	R	J	U	B	N	H	S	K	T	S	O	I
A	N	D	E	R	E	M	A	H	A	T	S	A	K	R	A
H	C	Z	A	U	R	O	L	I	G	Z	D	B	L	O	J
I	N	E	Z	D	J	X	A	N	A	P	R	B	L	I	M
B	M	X	T	I	H	O	K	O	P	T	T	O	N	S	A

GARIA, OLOA, GARAGARRA, ILARRAK, BABAK, ARRAUTZAK, ANDERE-
 MAHATSAK, OILOAK, LEKAK, BELAR-AROMATIKOAK, ZAINZURIAK,
 ORBURUAK

6) Garia, oloa eta garagarraren inguruko informazioa bilatu eta erantzun ondorengo galderari: Zer da? Noiz ereiten da? Noiz jasotzen da? Zertarako erabiltzen da?

GARIA: _____

OLOA: _____

GARAGARRA: _____

7) Bidaia prestatzen ari gara eta galdera batzuk etorri zaizkit burura, lagunduko al didazu erantzuten?

1. Gasteizetik Argotera, baserria bisitatzera joateko, 25 kilometro daude. Autobusak 5 kilometro egiteko 6 minutu behar baditu, zenbat denbora emango dugu Argotera iristeko?

2. Baserriko oilategian 15 oilo daude. Bakoitzak 5 arrautza jartzen ditu astean. Hilabete batean, zenbat arrautza batuko dira guztira? Beraz, zenbat dozena batuko dituzte? Eta zenbat arrautza geratuko dira soberan?

3. Bisitatuko duzun baserriko jabea zara eta zure soroetan garia, oloa eta garagarra ekoizten dira. Guztira 30 hektarea dituzu. Erdia garia ekoizteko erabiltzen duzu. Hektarea bakoitzeko 5 tona ekoizten dira. Tona bat 1.000 kilo direla jakinda eta tona bakoitza 200 eurotan ordaintzen dutela jakinda, zenbat diru irabaziko duzu garia landatzen?

4. Uholdeak direla eta, zure baserriko gariaren ekoizpenaren $\frac{2}{3}$ galdu duzu. Zenbat tona gari galdu duzu? Eta zenbat diru?

- 8) Bisita egin eta gero, ondorengo tauletan, jar itzazu baserria eta hiriaren alde onak eta alde txarrak.

BASERRIA	
ALDE ONAK	ALDE TXARRAK

HIRIA	
ALDE ONAK	ALDE TXARRAK

- 9) Binaka edo hirunaka jarrita, konpara itzazu baserriko eta eskolako baratza produktuetan eta baliabideetan oinarrituz. Zer uste duzu hobetu daitekeela eskolako baratzean? Zer egin dezakezu zuk?

ESKOLAKO BARATZA	BASERRIKO BARATZA
HOBEKUNTZA PROPOSAMENA:	

10) Orain baserrira bisita egin duzula eta gauza asko ikasi dituzula, erantzun itzazu berriro ere hurrengo galderi:

1. Emakumea baserritarra izan daiteke? Edo bakarrik gizona? Zergatik?

2. Baserritarrak aberatsak edo pobreak direla uste duzu? Zergatik?

3. Baserritarrek ordenagailuak erabiltzen dituztela uste duzu?

4. Zertan uste duzu egiten dutela lan baserritarrek?

5. Ba al dakizu ze produktu behar diren patata tortilla bat egiteko? Nondik datoz produktu horiek?

6. Nondik datoz supermerkatuetan aurkitzen dituzun produktuak?

INKESTA				
Adierazi X batekin egokiena iruditzen zaizun erantzuna.	Bat ere ez	Gutxi	Nahiko	Asko
Klasean egindako ariketak interesgarriak iruditu zaizkizu?				
Bisita egunean, azalpenak ulertu zenituen?				
Klasean egindako ariketak azalpenak ulertzen lagundu dute?				
Interesgarriak ziren bisitan eman zituzten azalpenak?				
Baserri ingurua gustatu zaizu?				
Gustatu zaizkizu baserrian egiten diren lanak?				
Gustatuko litzaizuke baserri batean lan egitea nagusia zarenean?				
Orokorrean, gustatu zaizu egindako guztia?				
Zer da gehien gustatu zaizuna? Ezer berririk ikasi duzu? Zer?				

2. eranskina

BASERRIA
HURBILETIK
EZAGUTZEN

IRAKASLEENTZAKO GIDA ETA ERANTZUNAK



creativecommons.org

Obra hau Creative Commons (CC) – Aitorpen – Ez Komertziala – Partekatu Berdin (by-nc-sa) babestuta publikatzen da. Lizentzia honek obra originalaren testuak irakurri, deskargatu, kopiatu, banatu, inprimatu, bilatu edo estekatzea aitortzen du, baita beste edozein helburu legitimorekin erabiltzea ere, inolako oztopo ekonomiko, legal edo teknikorik gabe, betiere autorearen izendatuz. Jatorrizko obra erabiliz sortutako beste obra batzuk ezin dira merkataritza helburuekin erabili; sortutako obren banaketa jatorrizko obra arautzen duen lizentzia berarekin egin behar da.

EGILEA: Maialen Arenas Cortazar

2015

Ondorengo lerroetan “Baserria hurbiletik ezagutzen” txosteneko jardueren nondik norakoak eta erantzunak azaltzen dira. Gida honetan, ikasleen txostenean agertzen diren jardueren azalpenak, letra etzanez agertzen dira eta letra lodiz ordea, azalpen edo erantzunak.

Saioak eta jarduerak: 6 saio eta 10 jarduera

- 1. saioa: Unitate didaktikoari hasiera emateko eta ikasleen aurre-ideiak ezagutzeko, 1., 2. eta 3. jarduerak (*Ea zenbat dakizun*) egin.
- 2. saioa: Aurreko saioa komentatu ikasleen aurre-ideiak guztion artean konpartitzeko, 3. jarduerako (*Baserria ezagutzen*) bideoa ikusi eta 4. eta 5. jarduerak (*Hiztegia ikasten eta hizki sopa*) egin hiztegi espezifikoak ezagutzeko.
- 3. saioa: 6. jarduera (*Informazioa bilatu*) egin zerealen inguruko informazioa bilatu eta garia, oloa eta garagarra ezberdintzen ikasteko.
- 4. saioa: 7. jardueran (*Bidaia prestatzen*) matematikako lau buruketa egin.
- 5. saioa: 8. eta 9. jardueretan (*Bisita eta gero*) hiria eta baserriaren alde onak eta txarrak tauletan idatzi eta taldeka baserriko eta ikastolako baratzak aztertu.
- 6. saioa: 10. jardueretan (*Ea zenbat ikasi duzun eta inkesta*) bideoa ikusi baino lehen eta bisita egin baino lehen egindako galdera berdinak erantzun eta asebetetze inkesta bete.

1) *Baserrira batera bisita egingo duzula jakin eta gero, nolakoa imajinatzen duzu? Zer nolako gauzak ikusiko dituzula uste duzu? Deskribatu.*

Ikasleek behin baserrira bisita egingo dutela jakinda, haien aurre-ideiak zeintzuk diren eta baserriaren bisitan zer topatzea espero duten jakiteko, ariketa honetan galdera horiek banaka erantzungo dituzte. Ikasle bakoitzak bere ideiak idatzi eta gero, gelakideekin parteka ditzake.

2) *Ondorengo tauletan, jar itzazu baserrira eta hiriaren alde onak eta alde txarrak.*

Ikasleen iritziz, baserrira eta hiriaren arteko aldeak zeintzuk diren ikusteko

eta dituzten aurre-iritziak zeintzuk diren jakiteko, baserriaren eta hiriaren alde onak eta txarrak tauletan idatziko dituzte.

3) *Baserria ezagutzen. Ea zenbat dakizun!*

Bideoa ikusi baino lehen, ikasle bakoitzak baserritarren inguruan dituen aurre-iritziak ezagutzeko, ondorengo galderak erantzungo ditu. Gero, guztien artean iritzi horiek partekatuko dituzte.

- Emakumea baserritarra izan daiteke? Edo bakarrik gizona? Zergatik?
- Baserritarrak aberatsak edo pobreak direla uste duzu? Zergatik?
- Baserritarrek ordenagailuak erabiltzen dituztela uste duzu?
- Zertan uste duzu egiten dutela lan baserritarrek?
- Nondik datoz supermerkatuetan aurkitzen dituzun produktuak?
- Ba al dakizu ze produktu behar diren patata tortila bat egiteko? Nondik datoz produktu horiek?

2. saioan, bideo bat ikusiko dute aurre-iritzi horiek egiaztatzen diren edo ez ikusteko, betiere erantzunak aldatu gabe edo beste kolore batez erantzunez.

Bideoaren link-a: <https://vimeo.com/58894409>

4) *Hiztegia ikasten. Lotu baliokideak diren hitzak eta dagokion argazkiaren azpian kokatu.*

Bai euskaraz baita gaztelaniaz ere baserrian ikusiko dituzten produktuak ezagutzeko, zenbakiak eta letrak lotuko dituzte. Behin hau eginda, hitz horiek dagozkien argazkiekin lotu eta bakoitzaren azpian dagokien izena idatziko dute.

1-c; 2-e; 3-d; 4-f; 5-a; 6-g; 7-b; 8-h; 9-l; 10-k; 11-j; 12-i

Argazkiak ordenean jarrita daude, hau da, lehenengoa garia, bigarrena oloa, hirugarrena garagarra eta abar.

5) Bila itzazu hizki sopa honetan aurreko ariketako hitzak euskaraz.

B	E	L	A	R	A	R	O	M	A	T	I	K	O	A	K
								K	A	K	E	L			
				O			A								
				R		Z									
A				B	T	Z	A	I	N	Z	U	R	I	A	K
R				U											
R			A	R											
A		R		U					B						
G	R			A			I	L	A	R	R	A	K		
A				K					B						
R									A						
A									K						G
G															A
						O	I	L	O	A	K				R
															I
A	N	D	E	R	E	M	A	H	A	T	S	A	K		A
														O	
													L		
												O			

GARIA, OLOA, GARAGARRA, ILARRAK, BABAK, ARRAUTZAK, ANDERE-MAHATSAK, OILOAK, LEKAK, BELAR-AROMATIKOAK, ZAINZURIAK, ORBURUAK

6) Garia, oloa eta garagarraren inguruko informazioa bilatu eta erantzun ondorengo galderari: Zer da? Noiz ereiten da? Noiz jasotzen da? Zertarako erabiltzen da?

Baserrian ekoizten diren 3 zereal hauek ezagutzeko asmoz, ikasle bakoitzak bere ordenagailua erabiliz edo binaka jarrita, proposatutako galderak erantzuteko, interneten informazioa bilatuko du.

7) *Bidaia prestatzen ari gara eta galdera batzuk etorri zaizkit burura, lagunduko al didazu erantzuten?*

Bisitarekin erlazioa duten buruketak planteatu dira:

a. *Gasteizetik Argotera, baserrira bisitatzera joateko, 25 kilometro daude. Autobusak 5 kilometro egiteko 6 minutu behar baditu, zenbat denbora emango dugu Argotera iristeko?*

25km – X

5km - 6min

X=30min

b. *Baserriko oilategian 15 oilo daude. Bakoitzak 5 arrautza jartzen ditu astean. Hilabete batean, zenbat arrautza batuko dira guztira? Beraz, zenbat dozena batuko dituzte? Eta zenbat arrautza geratuko dira soberan?*

15 x 5= 75 arrautza astean

75 x 4= 300 arrautza hilabetean

300 / 12= 25 dozena

Ez dira soberan geratuko

c. *Bisitatu duzun baserriko jabea zara eta zure soroetan garia, oloa eta garagarra ekoizten dira. Guztira 30 hektarea dituzu. Erdia garia ekoizteko erabiltzen duzu. Hektarea bakoitzeko 5 tona ekoizten dira. Tona bakoitza 200 eurotan ordaintzen dutela jakinda, zenbat diru irabaziko duzu garia landatzen?*

30 hektarea: 2= 15 hektarea

15 hektarea x 5 tona= 75 tona

75tona x 200 euro= 15.000 euro

d. *Uholdeak direla eta, zure baserriko gariaren ekoizpenaren 2/3 galdu duzu. Zenbat tona gari galdu duzu? Eta zenbat diru?*

75 tona x 2/3 = 50 tona galdu

50 tona x 200euro= 10.000 euro galdu

8) *Bisita egin eta gero, ondorengo tauletan, jar itzazu baserria eta hiriaren alde onak eta alde txarrak.*

Behin baserrira bisita eginda, baserria eta hiriaren arteko aldeak zeintzuk diren ikusteko eta bisita egin baino lehen betetako taulekin konparaketa egiteko, baserriaren eta hiriaren alde onak eta txarrak tauletan idatziko dituzte.

9) *Binaka edo hirunaka jarrita, konpara itzazu baserriko eta eskolako baratza produktuetan eta baliabideetan oinarrituz. Zer uste duzu hobetu daitekeela eskolako baratzean? Zer egin dezakezu zuk?*

Ikasleak talde txikietan banatuta, baserrian ikusitako baratza eta eskolan duten baratza konparatuko dituzte, ekoizten diren produktuak eta erabiltzen den makinaria eta beste baliabideak kontuan hartuz. Ondoren, talde berdinak mantenduz, eskolako baratza hobetzeko proposamen bat egingo dute eta ikasleek hori hobetzeko zer egin dezaketen adostuko dute. Horrela, ikasleen proposamenetako bat aurre eraman daiteke eta ikasleek parte har dezakete.

10) *Orain baserrira bisita egin duzula eta gauza asko ikasi dituzula, erantzun itzazu berriro ere hurrengo galderei:*

Unitate didaktiko honen azken ariketa gisa, bideoa ikusi baino lehen eta bisita egin baino lehen erantzun zituzten galderak erantzungo dituzte berriro ere, zituzten aurre-ideiak eta bereganatu dituzten ezagutzak konparatzeko asmoz.

- *Emakumea baserritarra izan daiteke? Edo bakarrik gizona? Zergatik?*
- *Baserritarrak aberatsak edo pobreak direla uste duzu? Zergatik?*
- *Baserritarrek ordenagailuak erabiltzen dituztela uste duzu?*
- *Zertan uste duzu egiten dutela lan baserritarrek?*
- *Nondik datoz supermerkatuetan aurkitzen dituzun produktuak?*

- *Ba al dakizu ze produktu behar diren patata tortila bat egiteko? Nondik datoz produktu horiek?*

Bukatzeko, banaka, asebetetze inkesta hau beteko du ikasle bakoitzak.

INKESTA				
Adierazi X batekin egokiena iruditzen zaizun erantzuna.	Bat ere ez	Gutxi	Nahiko	Asko
Klasean egindako ariketak interesgarriak iruditzen zaizkizu?				
Bisita egunean, azalpenak ulertu zenituen?				
Klasean egindako ariketak azalpenak ulertzen lagundu dute?				
Interesgarriak ziren bisitan eman zituzten azalpenak?				
Baserri ingurua gustatu zaizu?				
Gustatu zaizkizu baserrian egiten diren lanak?				
Gustatuko litzaizuke baserri batean lan egitea nagusia zarenean?				
Orokorrean, gustatu zaizu egindako guztia?				
Zer da gehien gustatu zaizuna? Ezer berririk ikasi duzu? Zer?				

3. eranskina

VISITAS ESCOLARES

Fecha de la visita:	2015eko ekainaren 10ean
Explotación visitada:	Argote
Nombre del centro:	Aranbizkarra Ikastola
Tutor/tutora(s) responsable(s):	Luisa Molguero y Yolanda Fernández
Curso y edad de los niños/as:	LH 6
Número de niños/as en la visita:	34

¿Qué objetivo o fines perseguía el centro con esta visita? Que el alumnado conozca una producción agrícola.			
¿Se han cumplido sus expectativas?	SI	x	
	NO		
¿Cómo valora la iniciativa? Adecuada.			
¿Cómo valoran la atención por parte de UAGA?	Muy buena	X	
	Mala		
	Mejorable		
¿ ¿Cómo valoran la atención por parte de la explotación?	Muy buena	X	
	Mala		
	Mejorable		
Han utilizado los materiales didácticos que UAGA les proporcionó?	NO		
	SI	x	
	Cuaderno		
	Unidad didáctica		X
¿Qué opinión le merecen dichos materiales? Adecuados, aunque mejor digitales.			
Si no los ha utilizado, por favor indique la razón:			
<input type="checkbox"/>	No se ajusta al ciclo		
<input type="checkbox"/>	No cubre contenidos adecuados		
<input type="checkbox"/>	Otros (especifique)		
<input type="checkbox"/>	No se ha proporcionado		
¿Deberíamos mejorar algún aspecto del material?			
¿Os ha sido de utilidad?	SI	x	
	NO		
¿Se ha adecuado la explicación de la visita a la edad y conocimientos de los niños y niñas?	SI	x	
	NO		
¿Qué aspectos de la visita consideran que deberíamos mejorar? Agian, aurretik informazio zehatzagoa bisitatuko den baserriari buruz: - Kokapena - Lana			
¿Deberíamos colaborar en otras cuestiones con los centros educativos? ¿En cuáles?			

Inguru giroko kontuetan, elikagaien jatorrian,...		
¿Les gustaría volver a repetir la iniciativa?	SI	x
	NO	
¿En qué tipo de explotaciones? Ganaderas.		